

ARDI-KONTU

Nere erritar maite eta euskal-zale
On Javier Peña eta Goñi-ri

Ardi kontuan dago
Jōse Mari Mocha,
besoetan arturik
jaya dan bildocha,
eta ikusirikan
ain guri ta belcha
pozez betetzen zayo
berari biyotza.

Bildochen ama dauka
beraren oñian,
umeari begira
egon eziñian;
noizik bein milīskatzen
du bizkar gañian
ezagueraz maitatu
liteken añian.

Jōse pozez betia
dago penik gabe,
dalako bildoch guri
politaren jabe;
soñu onena bañon
arentzat da obe
entzutia bildochak
gosoro diyon *bee!*

Mendiyan gora bera
dabill Jōse Mari,
askotan chistu joaz
bestela kantari;
euskaraz deitzen diyo
bere ardiyari
esanaz *atōs, atōs,*
chiki chikiyari.

Bere ondora biltzen
dira ardi denak,
aren eskutik jaten
dakite geyenak;
berdiñ maitatzen ditu
medar ta gizenak
ta, buruz badakizki
guztiyen izenak.

Bere bizi moduaz
dago chit kontentu,
krabiyola ederrikan
ark egiten ditu;
ondo bizi dan iñoiz
bazayo galdetu,
erantzun oidu:—Pozik
nabill... ardi-kontu.

JOSÉ ARTOLA.